

## Herri Kirolen topaketan giro aparta izan genuen

2012/06/12

Garagardo azoka honek izandako berritasun nabarietako bat, MUko Kirol Zerbitzuaren eta Arrasateko errugby elkartearen artean antolatutako Herri Kirol topaketa izan da. Hitzordua arratsaldeko 18:30etan izan zen Herriko plazako karpan bertan, eta MUko ikasle eta errugby taldeko jokalarien artean osatutako hiru taldek eman zuten izena.

Herri Kiroletako 4 jokamolde ezberdinek osatu zuten topaketa; ingudea, txinga eramatea, zaku lasterketa eta soka tira. Ikusmina sortu zuten jokamolde hauek Arrasateko Herriko plazan, eta jende ugari bildu zen ekintzaren inguruan.

Mondraberrin ere azaldu zen albisteak

